

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Urduñako Udala**

Obra-brigadako arduradun lanpostu bat txanda irekiaren bidez betetzeko ezohiko hautaketa-prozesua arautzen duten oinarriak onartzea.

Obra-brigadako arduradun lanpostu bat txanda irekiaren bidez betetzeko ezohiko hautaketa-prozesua arautzen duten oinarriak onartzea

2022ko abenduaren 23ko Alkatetzaren 750 zenbakiko Dekretuaren bidez, eta enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legea aplikatuz, Obra-brigadako arduradun lanpostu bat txanda librean betetzeko egonkortze-prozeduraren deialdia arautzen duten oinarriak onartu dira.

Urduñan, 2022ko abenduaren 23an. Itziar Biguri Ugarte alkatea.

EGONKORTZEKO PROZEDURARAKO DEIALDIA ARAUTZEN DUTEN OINARRIAK, MEREZIMENDUEN LEHIAKETAREN BIDEZ ETA TXANDA IREKIAREN ARABERA OBRA-BRIGADAKO ARDURADUN PLAZA BAT BETETZEKO ASMOZ.

1. artikulua. HELBURUA

Oinarri hauek honako honexetarako deialdia arautzea dute helburu: merezimenduen lehiaketarako sistemaren bidez, txanda irekiaren arabera eta aldi baterako enplegua egonkortzeko ezohiko prozesuaren barruan, Urduñako Udaleko plantillako Obra-brigadako arduradun plaza bat karrerako funtzionario moduan betetzea.

Urduñako Udalak onartutako eta 2022ko maiatzaren 30eko 102. «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» argitaratutako Lan Eskaintza Publikoan, egonkortzeko prozesupean dauden zenbait plaza agertzen dira, Lan Publikoan Behin-behinekotasuna Murrizteko Premiazko Neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen arabera (aurrerantzean, 20/2021 Legea).

Lege horretan, bertako seigarren eta zortzigarren xedapen gehigarrien arabera, iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko ezohiko deialdia egiteko aukera ematen da, Lan Publikoaren Oinarrizko Estatutuari buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 61.6. eta 61.7. artikuluetan xedatutakoa kontuan hartuta, lehiaketa-sistemaren bitartez 2016ko urtarilaren 1a baino lehenagotik etengabe aldi baterako bete diren plazak estaltzeko. Deialdi hau behin baino ez da egingo.

Deialdi hauen helburu diren plazak betetzen ari direnek oinarri hauetan azaldutako hautaketa-prozesuetan parte hartzen ez badute, ezin izango dituzte plaza horiek lortu, eta ez dute jasoko ez kalte-ordainik ez konpentsazio ekonomikorik, 20/2021 Legearen 2.6. artikuluan xedatutakoa kontuan hartuta.



Honako hauexek dira plazen ezaugarriak:

PLAZA KOP.	LOTUTAKO LANPOSTUAK	EZAUGARRIAK (hizkuntza-eskakizuna, derrigortasun-data, LMO, BO, berariazko eskakizunak...)
1	10- Obra-brigadako arduraduna	Administrazio bereziko eskalako zerbitzu berezien azpieskala, edo C2 kategoria azpitaldea Obra-brigadako arduraduna 2. hizkuntza-eskakizuna, 2013ko urtarrilaren 1eko derrigortasun-data duena. Lanpostu-mailako osagarria (LMO): 19. Berariazko osagarria (BO) 14.124,83 €. Dedikazio-erregimena: arduraldi eskusiboa Titulazio akademikoa: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatua. Nahitaezko baldintza: B motako gidabaimena izatea.

2. artikulua. EZARRI BEHARREKO ARAUAK

Honako arau hauek ezarri beharko dira:

- 20/2021 Legea, abenduaren 28koa, Lan Publikoan Behin-behinekotasuna Murrizteko Premiazko Neurriei buruzkoa (aurrerantzean, 20/2021 Legea).
- 14/2021 Errege Lege Dekretua, uztailaren 6koa, Lan Publikoan Behin-behinekotasuna Murrizteko Premiazko Neurriei buruzkoa.
- 3/2017 Legearen 19.Bat.6. artikulua, ekainaren 27koa, Estatuko 2017. urteko Aurrekontu Orokorrei buruzkoa, eta 6/2018 Legearen 19.Bat.9. artikulua, uztailaren 3koa, Estatuko 2018. urteko Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.
- 7/2021 Legea, azaroaren 11koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Kidegoei eta Eskalei buruzkoa (aurrerantzean, 7/2021 Legea).
- 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Lan Publikoaren Oinarrizko Estatutuari buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duena (aurrerantzean, TRE-BEP).
- 30/1984 Legea, abuztuaren 2koa, Funtzio Publikoa Eraldatzeko Neurriei buruzkoa.
- 6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa.
- 896/1991 Errege Dekretua, ekainaren 7koa, Tokiko Administrazio funtzionarioak hautatzeko prozeduran bete beharreko oinarrizko arauak eta gutxieneko programak zehazten dituen, 8. eta 9. artikulua kontuan hartu gabe.
- 10/1982 Oinarrizko Legea, azaroaren 24koa, Euskararen Erabileraren Normalkuntzari buruzkoa.
- 86/1997 Dekretua, apirilaren 15ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoetan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Prozesua arautzen duena.



- 297/2010 Dekretua, azaroaren 9koa, Euskararen Ezagutza egiaztatzen duten Tituluak nahiz Ziurtagiriak baliokidetzen dituen eta Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko mailekin berdintzen dituen.
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa (aurrerantzean, 39/2015 Legea).
- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoko Araubide Juridikoari buruzkoa.
- 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta Gizonen Benetako Berdintasunerako.
- 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik gabeko Bizitzetarako, gaur egungo indarreko testua kontuan hartuta.
- Ordezko moduan, 364/1995 Errege Dekretua, martxoaren 10ekoa, Estatuko Administrazio Orokorraren Zerbitzura dauden Langileak Sartzeko eta Estatuko Administrazio Orokorreko Funtzionario Zibilen Lanpostuak Betetzeko eta Haien Sustapen Profesionala bultzatzeko Araudi Orokorra onartzen duena.
- Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2016ko apirilaren 27an emandako 2016/679 Araudia (EB), norberaren datuen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesten dituen eta 95/46/EE Zuzentaraua indarrak gabe uzten duena.
- 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Norberaren Datuen Babesari eta Eskubide Digitalen Bermeari buruzkoa.
- 2/2004 Legea, otsailaren 25ekoa, Titularitate Publikoko Norberaren Datuen Fitxategiei eta Datuen Babeserako Euskal Agentziaren Sorrerari buruzkoa.
- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Tokiko Araubidearen Oinarriari buruzkoa.
- Tokiko araubidearen arloan indarrean dauden legezko xedapenen testu bategina, apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutakoa.
- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Tokiko Erakundeei buruzkoa.

3. artikulua. *TRATU-BERDINTASUNAREN PRINTZPIOA*

Espainiako Konstituzioko 14. artikuluan eta Euskadiko Autonomia Estatutuari buruzko abenduaren 18ko 3/1979 LOren 6. eta 9. artikuluetan xedatutakoaren arabera, deialdiek tratu-berdintasunaren printzipioa beteko dute, eta ezin izango da inolako bereizkeriarik egin jaiotzagatik, arrazagatik, sexuagatik, erlijioagatik, iriztiagatik edo beste edozein izaera edo inguruabar pertsonal edo sozial batengatik, tratu berezia kasu justifikatu, arrazoizko, proportzional eta koherenteetan oinarritzen duen araren bat egoteagatik babespean ez badago.

4. artikulua. *EGONKORTZEKO PROZESUEN AZALPENA*

20/2021 Legearen seigarren eta zortzigarren xedapen gehigarriari dagokienez 7/2021 Legearen bigarren xedapen gehigarrian adierazitako aurreikuspenen esparruan, enplegua egonkortzeko ezohiko prozesua lehiaketa-sistemaren bidez egingo da.

**5. artikulua. PARTE HARTZEKO ESKAKIZUNAK****1. Eskakizun orokorrak**

Deitutako plazak lortu nahi dituzten izangaiek parte hartzeko honako eskakizun hauek bete beharko dituzte eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen, eta eskakizun horiek betetzen jarraitu beharko dute harik eta karrerako funtzionario moduan lanpostuaz jabetzen diren arte:

a) Nazionalitatea. Espainiako nazionalitatea edukitzea.
Horrez gain, honako hauek espainiarrek dituzten baldintza berberetan parte hartu ahal izango dute, zuzenean edo zeharka botere publikoaren egikaritzan edo Estatuaren nahiz administrazio publikoen interes orokorren babesean partaidetza dakarten plazetan izan ezik:

a.a) Europar Batasuneko estatu kideetako nazionalak.
a.b) Espainiarren eta Europar Batasuneko beste estatu kide batzuetako nazionalen ezkontidea, ezkontide horien nazionalitatea edozein dela ere, betiere, zuzenbidearen bidez bananduta ez badaude. Halaber, baldintza berberetan, bien ondorengoek parte hartu ahal izango dute, hogeita bat urtetik beherakoek edo adin horretatik gorakoek, betiere, mendekoak badira.

Era berean, Europar Batasunak egindako eta Espainiak berretsitako nazioarteko itunen ezarpen-eremuan daudenek parte hartu ahal izango dute, betiere, bertan langileen zirkulazio askea ezarri beharra badago.

b) Gaitasuna: zereginak garatzeko gaitasun funtzionala edukitzea. Horretarako, gaitasun psikofisiko zehatza eduki beharko da, eta gaitasuna edo desgaitasuna bateragarria izango da deitutako plazetako lanpostuko eginkizunen zein zereginen garapen arrunterako. Gainera, deialdia egiten duen administrazioak izendatutako zerbitzu medikoek egiaztatuko dute, zortzigarren oinarrian aurreikusitakoa kontuan hartuta. Nolanahi ere, behar besteko egokitzapenak egin ahal izango dira lantokian, laneko arriskuen prebentzioari buruzko indarreko arautegiaren arabera ezinbestean garatu behar direnean, pertsonak lanaren ondorioz sortutako arriskuetatik babestuta daudela bermatzeko.

c) Adina: hamasei urte beteta edukitzea eta, hala badagokio, nahitaez erretiratzeko gahieneko adinetik gorakoa ez izatea.

d) Gaikuntza: diziplinazko espedientearen bidez edozein administrazio publikotako edo autonomia-erkidegotako organismo konstituzional edo estatutarioetako zerbitzutik bereizita ez egotea eta epailearen ebazpenaren bidez enplegu edo kargu publikoetarako erabat edo modu berezian ezgaituta ez egotea, funtzionarioen kidegoetara edo eskaletara iritsi ahal izateko.

Beste estatu bateko nazionala izanez gero, ezgaituta edo egoera baliokidean ez egotea eta baldintza berberetan bere estatuan enplegu publikoa lortzea eragozten dion diziplinazko zehapenaren edo baliokidearen eraginpean ez egotea.



e) Titulazioa: oinarri hauetan eskatutako titulazioa edukitzea edo bere igorpenerako eskubideak ordainduta edukitzea.

Atzerrian lortutako titulazioak dituzten izangaiek egiaztatu egin beharko dute kasuan kasuko baliokidetzatza dutela edo, hala badagokio, homologazioaren egiaztatzea dutela.

f) Administrazio publikoen zerbitzura dauden langileen bateraezintasunen arloko indarreko arautegian ezgaikuntzarako edo ezintasunerako aurreikusitako legezko auziren baten eraginpean ez egotea. Nolanahi ere, kargu publiko edo jarduera pribatu bateraezina betetzen ari direnek legezko arau horietan aipatutako aukera-eskubidea erabili ahal izango dute.

g) Urduñako Udalean, eskala, azpieskala edo kategorია bereko karrerako funtzionarioa edo lan-kontratadun langile finkoa ez izatea.

h) Langileak hautatzeko deialdietan izena emateko tasa ordaindu izana.

Deialdian parte hartu nahi dutenek eskatutako eskakizun guztiak bete beharko dituzte eskubideak aurkezteko epea amaitzen denerako. Era berean, horiei guztiei eutsi beharko diete hautaketa-prozeduran, harik eta karrerako funtzionario moduan izendatuak izan arte, b) idatz-zatien gaitasun funtzionalari buruz adierazitako kasuan izan ezik, erakundeak izendatutako zerbitzu medikoei ziurtatu beharko dutelako praktiketako edota karrerako funtzionario izendatuak izan baino lehentxeago.

Nolanahi ere, prozedurako edozein unetan epaimahaiak izangairen batek deialdian eskatutako eskakizunak betetzen ez dituela jakingo balu, kanpoan utziko du interesdunari entzun ondoren, eta, egun horretan bertan, hautaketa-prozesua deitu duen agintaritzari emango dio horren berri.

h) Datuen babesa

a. Oinarri hauek helburu duten hautaketa-prozesurako bildutako datu pertsonalak (izen-abizenak, NAN eta prestakuntza-maila, esaterako) Urduñako Udalak tratatuko ditu, Norberaren Datuen Babesari eta Eskubide Digitalen Bermeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan eta Titularitate Publikoko Norberaren Datuen Fitzategiei eta Datuen Babeserako Euskal Agentziaren Sorrerari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legean zehaztutako aurreikuspenen arabera eta honako xede hauek kontuan hartuta:

Oinarri hauek helburu duten hautaketa-prozesuan parte hartzea eta datuak aldizkarietan, iragarki-tauletan, webgunean eta, oro har, hautaketa-prozesuko emaitza partzialen edo behin betikoen jakinarazpenerako erabiltzen den edozein sistematari argitaratzea.

Tratamendu horiek Urduñako Udalari tratamenduaren arduradun moduan emandako botere publikoen erabilera daude oinarrituta.



Hirugarrenei ez zaie daturik jakinaraziko, betiere, legearen arabera beharrezkoa ez bada edo titularrek baimendutakoak ez badira. Ez da datuen nazioarteko igorpenik egingo. Datuen kategoria bereziak tratatu egingo dira, ordea; osasun-langile eskudunek izangaiak gaitasun funtzionalaren eskakizunetara egokitzen direla egiaztatzeko behar dituzten osasun-datuak, zehatz-mehatz.

b. Oinarri hauek helburu duten hautaketa-prozesua publikotasunaren printzipioaren bidez arautuko denez, ez da eskabidea onartuko, izangaiak bere datuen tratamendua baimentzen ez badu, haien edukia eta aurreko paragrafoan adierazitako xedeak kontuan hartuta.

6. artikulua. ESKABIDEAK ETA ONARPENA

1.- Eskabideak betetzea eta aurkeztea.

a) Parte hartu nahi dutenek eskabidearen/adierazpen arduratsuaren instantzia eta autobalorazioarako inprimakia, I. eta II. eranskinak, aurkeztu beharko dituzte, hurrenez hurren, baita bertan adierazitako agiriak ere.

Honako hauxe egin beharko da, onartua izateko eta, hala badagokio, hautaketa-prozesu honetan parte hartzeko:

- 1) Eranskin horietako atal guztiak betetzea.
- 2) Epearen barruan aurkeztea.
- 3) 10 €-ko tasa modu nominalean eta banaka ordaintzea, indarreko zerga-ordenantzan zehazten den bezala.

Zenbateko hori bankuko transferentziaren bidez ordainduko da Urduñako Udalaren izenean, honako kontu-zenbaki hauetan:

- KUTXABANK ES93-2095-0059-4091-0198-9303
- LA CAIXA ES24-2100-4487-8102-0000-0584
- BBVA ES88-0182-1290-3900-0000-2998

Bertan, diru-sarrera egiten duen izangaiaren izena jarri beharko da.

Eskabideak aurkezteko epean, tasa hori ordaindu ezean edo oso-osorik ordaindu ezean, hautaketa-prozesutik kanpo geratuko da izangaia.

Edonola ere, eskabidearekin batera aurkeztu beharko da ordainagiria.

I. eta II. eranskinak garaiz eta behar bezala aurkeztu ezean, hautaketa-prozesutik kanpo geratuko da izangaia.

Eskabidea/adierazpen arduratsua aurkezten dutenean, izangaiak oinarri honetan eskatutako baldintzak onartzen dituzte.

Eskabideak udaleko Alkatetzara bidaliko dira.

b) Eskabideak aurkezteko lekua.



Eskabideak eta eskatutako agiriak honako leku hauetan aurkeztu ahal izango dira:

1) Egoitza elektronikoa egindako eskabidea:

www.urduna.com

Aurkezpen elektronikoa aukeratuz gero, egoitzan onartutako identifikazio-sistema eta sinadura elektronikoa eduki beharko dira.

Eskabide horiek helbide elektroniko horretan zehaztutako prozedura elektronikoaren bidez aurkeztuko dira.

2) Aurrez aurreko eskabidea: Urduñako Udaleko Erregistrako eta Herriarren Arretarako Bulegoa (Kale Zaharra 2-4).

Eskabideak Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4. artikuluan zehaztutako edozein lekutan ere aurkeztu ahal izango dira.

Ondorio horietarako, eskabidearen/adierazpen arduratsuaren eredu ofiziala eta autobaloraziorako inprimakia erantsi dira oinarri hauetan (I. eta II. eranskinak).

c) Aurkezteko epeak:

Eskabidea/adierazpen arduratsua eta autobaloraziorako inprimakia 20 (hogei) laneguneko epean bete beharko dira, deialdiari buruzko iragarkia «Estatuko Aldizkari Ofizialean» argitaratu osteko hurrengo egunetik hasita. Ondorio horietarako, igandeak eta jaiegunak ez ezik, larunbatak ere ez dira laneguntzat hartuko.

d) Eskakizunak eta merezimenduak. Alegazioa eta egiaztapena.

5. artikuluan partaidetzarako azaldutako eskakizunak bete egiten direla adierazteko, behar beste zerrendatu eta zehaztu beharko dira eskabidean/adierazpen arduratsuan.

Merezimenduak alegatzeko, behar bezala zerrendatu eta zehaztu beharko dira autobaloraziorako inprimakian. Era berean, egiaztatu egin beharko dira, eta, horretarako, haien egiaztatgiriaren kopia aurkeztu beharko da eskabidearekin batera.

Alegatzen diren eskakizunak eta merezimenduak edukitzeko erreferentziako data eskabideak aurkezteko epea amaitzen denekoa izango da.

Ez dira eskabideak aurkezteko epean alegatutakoak ez beste merezimendu batzuk baloratuko, eta epe hori amaitu baino lehen eduki beharko dira merezimendu horiek.



Zuzenketarako epea amaitutakoan, izangaiak onartzeko eta baztertzeko ebazpena onartu duen agintaritzak aurkeztutako erreklamazioak ebatziko ditu, eta behin-behineko zerrendarako adierazitako moduan argitaratuko da.

Zuzenketarako epea ezin izango da eskabidea hobetzeko erabili, eta ezin izango dira eskabideak aurkezteko epean alegatu ez ziren merezimendu berriak erantsi.

5. Epe hori igarotakoan, Alkatetzak ebazpen berria emango du, onartuen zein baztertuen behin betiko zerrenda onartzeko, eta behin-behineko zerrendarako adierazitako moduan argitaratuko da. Erreklamaziorik aurkeztu ezean, behin-behineko zerrenda berez behin betiko bihurtuko denez, inguruabar horren berri emango da aurreko parafoan adierazitako iragarkian.

6. Onartuen, baztertuen eta ezetsien behin betiko zerrendak onartzen dituen ebazpenaren aurka, 39/2015 Legearen 123. artikuluan aurreikusitako aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da; edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Administrazioarekiko Auzi Jurisdikzioa arautzen duen Legean zehaztutako moduan.

7. Onartuen zerrendan agertu arren, ez du esan nahi interesdunei hautaketa-prozesuan eskatutako eskakizunak aitortzen zaizkienik. Azkenean, izangaia hautatuko balute, izendapenaren aurretik aurkeztu beharreko agirien ondorioz eskakizunen bat betetzen ez dutela ikusten bada, prozedura honetan parte hartzeagatik izan litzaketen eskubide guztiak galduko dituzte.

Hautaketa-prozesuko edozein unetan, epaimahaiak kasuan kasuko deialdian parte hartzeko eskatutako eskakizunen bat betetzen ez duten izangaiak daudela jakingo balu, interesdunei entzun ondoren, haien bazterketa proposatu beharko dio organo eskudunari, eta parte hartzeko eskabidean izangai horrek adierazitako faltakeriak edo zehaztasunik ezak jakinarazi beharko lituzke.

8. Jakinarazpenak. Onartuen edota baztertuen behin betiko zerrenda argitaratzen denetik, hautaketa-prozesuaren garapenean egin beharreko iragarki guztiak udaletxeko iragarki-taulan eta udalaren webgunean argitaratuko dira. Banakako ustezko jakinarazpenen ondorioetarako, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legea hartuko da kontuan.

8. artikulua. EPAIMAHAI KALIFIKATZAILEA

1. Osaketa

a) Deitutako hautaketa-prozesuko Epaimahai Kalifikatzailea honako hauexetan xedatutakoaren arabera osatuko da: Lan Publikoaren Oinarriko Estatutuari buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 60. artikulua; ekainaren 7ko 896/1991 Errege Dekretuaren 4. artikulua; Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 31. artikulua; apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 127.1.h) artikulua, abenduaren 16ko 57/2003 Legean emandako idazketaren arabera;



eta Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik gabeko Bizitzetarako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 20.1 b) artikulua, gaur egungo indarreko testua kontuan hartuta.

b) Epaimahaiak presidentea, idazkaria eta hiru bokal izango ditu, eta, haien artean, ezinbestean egongo da Herri Ardularitzaren Euskal Erakundeak proposatutako pertsona bat. Gainera, epaimahaikideen kopurua ez da inolaz ere bostetik beherakoa izango. Bere osaketa teknikoa izango da batez ere, eta, espezialitatearen printzipioaren bidez zehaztuko denez, kide guztiek deitutako plazak lortzeko eskatutako maila akademikoko edo hortik gorako titulazioa eduki beharko dute.

c) Epaimahaietako kideetza banakakoa izango da beti, eta ezin izango da ordezkartzaren bidez edo inoren kontura gauzatu. Epaimahaikide guztiek hitza eta botoa izango dituzte, bertako idazkariak izan ezik, ez duelako azken ezaugarri hori edukiko. Epaimahaiaren erabakiak bertarutako botoen gehiengoz hartuko dira, eta, berdinketarik egonez gero, presidentearen botoak erabakiko du.

d) Epaimahaikideek ezin izango dute esku hartu, eta korporazioko alkateburuari jakinarazi beharko diote, Sektore Publikoko Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluan aurreikusitako inguruabarretako bat gertatzen denean, eta izangaiek errekusatu egin ahal izango dituzte, aipatutako lege horren 24. artikuluan xedatutakoaren arabera, aurreko artikuluan aurreikusitako arrazoiren bat gertatzen denean.

e) Epaimahaia osatzen duten titularren eta ordezkoen zerrenda nominala Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, hautaketa-prozesuan onartutakoaren eta baztertutakoaren behin betiko zerrendekin batera, alkateburuak izendatu ondoren.

f) Epaimahai Kalifikatzailean parte hartzean, zerbitzuagatik kalte-ordainei buruzko arautegian legez aurreikusitako kalte-ordainak jasoko dira. Modu berean, kasuan kasuko kalte-ordainak jasoko dituzte epaimahaiari aholkularitza ematen diotenen edo hautaketa-prozesuaren garapenean laguntzen dutenen.

2. Eraketa

a) Epaimahaia ezin izango da eratu, eta ezin izango du jardun, gutxienez presidentea eta idazkaria (titularrak edo ordezkoak) eta gainerako kideen erdiak bertaraten ez badira, Sektore Publikoko Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legean xedatutakoaren arabera.

b) Egokitatz jotzen badu, epaimahaiak adituen aholkularitza jaso ahal izango du. Aditu horiek epaimahaiari laguntzen diotenean, euren espezialitate teknikoan arloko aholkularitza baino ez diote emango.

c) Kargua hutsik geratzen bada, karguduna ez badago, gaixorik badago edo legezko beste arrazoiren bat badago, antzinasun eta adin handieneko bokalak, hurrenkera horretan, ordezkatzeko ditu presidentea eta bere ordezkoa. Kargua hutsik geratzen bada, karguduna ez badago, gaixorik badago edo legezko beste arrazoiren bat badago, epaimahaiak gehiengodun erabakiaren bidez aukeratutako bokalak ordezkatzeko ditu idazkaria eta bere ordezkoa.

d) Epaimahaikideek hitza eta botoa izango dituzte, idazkariak izan ezik, hitza izango duelako, baina botorik ez.

Epaimahaiaren erabakiak botoen gehiengoz hartuko dira. Berdinketarako presidentearen kalitateko botoaren bidez ebaztuko dira.



e) Epaimahaikideek eta hautaketa-prozesuan esku hartzen duten aholkulariek edo adituek euren eginkizunen betearazpenean bermatuko dute intimitaterako eskubidea, baita izangaiekiko errespetua zein adeitasuna ere, eta bakoitzari buruz bildutako informazioa behar bezala tratatzen dela bermatuko dute.

Epaimahaiak erabateko autonomia funtzionala izango du jarduteko orduan, eta honako haxe egongo da bere ardurapean: prozeduraren gardentasuna zein objektibotasuna, proben edukia zein isilekotasuna eta deialdiaren oinarrien betearazpen zorrotza.

f) Epaimahaiak prozesuaren ordena eta garapen egokirako beharrezkoak diren erabakiak hartzeko eskumena izango du deialdia arautzen duten oinarrietan aurreikusita ez dagoen guztian, eta interpretazioaren nahiz ezarpenaren inguruan sortzen diren gai guztiak ebatziko ditu, bere eginkizunen betearazpenarekin berarekin zerikusia dutenak ere bai. Bere ebazpenen aurkako gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango da alkateburutzaren aurrean, ebazpenean bertan adierazitako epean.

g) Epaimahaiari erreklamazioak egiteko, kasuan kasuko inprimakia bete beharko da.

Era berean, Urduñako Udaleko instalazioetan ere egin ahal izango dira, edo, bestela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4. artikuluan adierazitako edozein lekutan aurkeztu ahal izango dira.

9. artikulua. HAUTAKETA-PROZEDURA

1. Izangaia hautatzeko prozedura

Hautaketa-prozedura lehiaketa bidezkoa izango da. Bertan, azterketa egingo da, eta Epaimahai Kalifikatzaileak eskabidean/adierazpen arduratsuan (I. eranskina) eta autobaloraziorako inprimakian (II. eranskina) alegatutako merezimenduak baloratuko ditu, betiere, behar bezala egiaztatuta badaude.

Merezimendu guztiak eskabidean/adierazpen arduratsuan eta autobaloraziorako inprimakian alegatu beharko dira, eta agiri bidez egiaztatu beharko dira aurkezpenerako epearen barruan.

Merezimenduak lortzeko muga eskabideak aurkezteko epea amaitzen denekoa izango da.

Alkatetzak onartuei, baztertuei eta ezetsiei buruz emandako ebazpenaren ondorioz sortutako zerrenda autobaloraziorako inprimakian lortutako puntuazio guztiaren arabera ordenatuko da, eta, ostean, Epaimahai Kalifikatzaileak baloratuko dituen instantzien kopurua deitutako plazen halako 5ekoa izango da.

Aurrekoari inolako kalterik egin gabe, izangaitza bideragarriak ez egotearren Alkatetzak onartuei, baztertuei eta ezetsiei buruz emandako ebazpenaren ondorioz sortutako aurretiko zerrenda erabiltzea erabakitzen bada, jarduketa hori garatzeko orduan bertan agertzen den puntuazioaren hurrenkera zorrotza errespetatuko da.



2. Merezimenduak honelaxe baloratuko dira:

2.1. Esperientzia: 80 puntu, gehienez ere.

- Esperientzia orokorra:

Edozein administrazio publikotan, baita deialdia egiten duen erakundean ere, aurrekoen antzeko kidego, eskala, azpieskala, aukera, espezialitate edo talde profesionalek atxikitako lanpostuetako zerbitzuengatik esperientzia izango da esperientzia orokorra, betiere, kasuan kasuko hautaketa-prozesuaren xedea badira, harreman sortzailea edonolakoa dela ere: funtzionarioen edo lan-kontradunen arlokoa.

Gehienez ere, 60 puntu emango dira, honako baremo honen arabera:

Administrazio Bereziko eskalako Zerbitzu Berezien azpieskalan edo edozein administrazio publikotan, Administrazio deitzailean barne, obretako Arduradun Taldearen azpitaldeko C2 kategorian egindako zerbitzuengatik, 0,0274 puntu lan egindako egun bakoitzeko.

- Berriazko esperientzia:

Esperientzia orokorraren balorazioaren osagarri, gehienez ere 20 puntu emango dira berriaz eta modu berezian, deialdia egiten duen administrazioan hautaketa-prozesuan deitutako lanpostuen garapenean emandako zerbitzuengatik, honako baremo honen arabera:

Administrazio Bereziko eskalako Zerbitzu Berezien azpieskalan edo deialdia egin duen administrazioan obrak egiten dituen brigadako arduradunaren azpitaldeko C2 kategorian egindako zerbitzuengatik, 0,00914 puntu lan egindako egun bakoitzeko.

Zenbaketaren ondorioetarako, oso kontuan hartuko da prestazioa ohiko lanaldiaren araubidepean eman bada, lan egindako urte osoa 365 egunekoa dela kontuan hartzen duena izango dela erabili beharreko formula.

Zerbitzua lanaldi mugatuan edo lanaldi murriztuan eman den epealdietan, lanaldi osoan lan egindakoak izango balira bezala zenbatuko dira.

Zenbatzeko orduan, erakunde bakoitzean lan egindako epealdiak batuko dira, eta, egun berean, ezin izango da kontratu/izendapen bat baino gehiago zenbatu.

2.2. Titulazioak eta karrerako funtzionarioa edo lan-kontratadun langile finkoa izateko prozeduretan gaitututako probak. Gehienez ere, 20 puntu emango dira honako merezimendu hauetan:



2.2.1.- Deitutako lanpostuan sartzeko eskatzen den prestakuntza akademikoko maila baino handiagoko (1) titulu bat izateagatik, betiere deitutako plazei lotutako lanpostuen funtzio-eremuari egokitutako titulazioak badira:

C2: Batxilergo edo teknikari titulua edo baliokidea: 10 puntu

2.2.2.- Deitutako lanpostuei lotutako eta erakunde ofizialek (herri-administrazioak, eskolak edo institutuak, herri-administrazioak, unibertsitateak, lanbide-elkargoak, mutualitateak, fundazioak, elkarteak, federazioak) emandako lanpostuei lotutako prestakuntza-ikastaroak jasotzeko orduengatik: 0,045 puntu jasotze-ordu bakoitzeko, gehienez ere 20 puntu.

2.2.3.- Informatika-ezagutzak.

Informatika-ezagutzak baloratuko dira, 20 puntu gehienez, eta 5 puntu emango dira ziurtagiri hauetako bakoitzeko:

- Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.
- Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.
- Oinarrizko Internet.
- Microsoft Access 2000/XP/2003 oinarrizkoa.
- Microsoft Outlook XP/2003/2010.
- Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/2010 maila bakarra.
- Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.
- Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.
- Microsoft Access 2000/XP/2003 aurreratua.
- Microsoft Access 2010 bakarra
- Internet aurreratua.

Moduluak gainditu egin direla egiaztatzeko, IT Txartelaren ziurtagiri-sistema erabiliko da. Modulu beraren zenbait bertsio egiaztatuz gero, haietako bat baino ez da baloratuko.

Deialdi honen ondorioetarako, maila aurreratua egiaztatzen dutenei oinarrizko maila ere egiaztatuko zaie.

2.2.4.- Gidabaimen hauetakoren bat edukitzeagatik, gehienez 10 puntu:

- C motako txartela: 7,5 puntu.
- C+E motako txartela: 10 puntu.

Sartzeko baldintza gisa ezarritakoez bestelako gidabaimenak edukitzea bakarrik baloratuko da, betiere deitutako plazei lotutako lanpostuen funtzio-eremuarekin zerikusia badu.



3. Euskararen hizkuntza-eskakizuna.

Euskararen ezagutza eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen egiaztatatu beharko da.

Hartara, kasuan kasuko hizkuntza-eskakizuna IVAPen ziurtagiriaren bidez egiaztatuta dutenek edo, bestela, Euskarako Ezagutzen Egiaztapenerako Tituluak eta Ziurtagiriak Baliokidetzeko eta Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateria Egokitze azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuak, uztailaren 4ko 187/2017 Dekretuaren bidez aldatutakoak, titulu baliokidetzen bat dutenek eskabidearekin batera aurkeztu beharko dute. Halaber, Euskaraz egindako Ikasketa Ofizialak Aitortzeko eta Euskarako Titulu eta Ziurtagiri Linguistikoen bidezko Egiaztapena Salbuesteko apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuan xedatutakoaren babespean hizkuntza-eskakizunak egiaztatu nahi dituztenek kasuan kasuko ziurtagiri akademikoa aurkeztu beharko dute eskabidearekin batera.

Era berean, Euskaraz egindako Ikasketa Ofizialak Aitortzeko eta Euskarako Titulu eta Ziurtagiri Linguistikoen bidezko Egiaztapena Salbuesteko apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuan xedatutakoaren babespean hizkuntza-eskakizunak egiaztatu nahi dituztenek kasuan kasuko ziurtagiri akademikoa aurkeztu beharko dute eskabidearekin batera.

10. artikulua. LEHIAKETA-PROZEDURAREN GARAPENA

Eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan eta onartuen zein baztertuen behin betiko zerrenda onartutakoan, agiriak eta guzti kontuan hartuta, Epaimahai Kalifikatzaileko presidenteari bidaliko zaizkio, oinarri hauetan xedatutakoaren arabera. Epaimahaiak izangaiek alegatutako merezimenduak baloratuko ditu, eta lehiaketaren faseko behin-behineko emaitzak argitaratuko ditu. Emaitza horiekin batera, agiriak zuzendu behar dituzten izangaiei zerrenda argitaratuko da, eta zuzendu beharreko egiaztapena duen merezimendua aipatuko da berariaz.

Argitalpen horren osteko hurrengo egunetik aurrera, izangaiek hamar (10) laneguneko epea izango dute, egokitze jotzen dituzten erreklamazioak egiteko eta bidezkoak diren zuzenketak egiteko. Epe hori ezin izango da inolaz ere erabili eskabidean/adierazpen arduratsuan alegatu ez diren merezimendu berriak eransteko.

Azken kalifikazioa lortzeko, lehiaketaren fasean lortutako puntuazioak batuko dira (egiaztatutako eta baieztatutako merezimendu bakoitzaren puntuazioen batura), eta horren arabera zehaztuko da plazetarako izangaiei lehenetsunezko hurrenkera. Pertsonen eta haien emaitzen zerrenda udalaren webgunean eta udaletxeko iragarki-taulan argitaratuko da. Esleipen-proposamena azken puntuazio handiena lortu duenarentzat izan beharko da.



Berdinketarik egonez gero, ondoz ondo honako irizpide hauen arabera ezarriko da hurrenkera:

- Lehenengo eta behin, Urduñako Udalean deitutako eskala, azpieskala edota kategoria berean zerbitzu-aldi luzeagoa eman duen izangaiaren alde.
- Bigarrenez, Urduñako Udalean zerbitzu-aldi luzeagoa eman duen izangaiaren alde.
- Hirugarrenez, beste administrazio publiko batzuetan zerbitzu-aldi luzeagoa eman duen izangaiaren alde.
- Azkenik, berdinketak bere horretan iraungo balu, zozketaren sistemara joko da.

Lehentasunaren klausularen ezarpena:

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2. artikulua ezarpenaren ondorioetarako, ez da artikulua horretan berdinketarako aurreikusitako klausula ezarriko, laguntzailearen azpieskalan emakumeen ordezkaritza urririk ez dagoelako.

11. artikulua. ONARTUEN ZERREDA

Epaimahaiak kasuan kasuko izendapen-proposamena egingo du, eta, horretarako, oinarri hauetan adierazitako zerrenda bidaliko dio korporazioko alkateburuari. Aldi berean, agintaritza horri bidaliko dio azken bilerako akta, eta, bertan, puntuazioaren hurrenkeraren arabera agertu beharko dira deitutako plazen kopurua gainditu duten izangai guztiak, plaza lortu duen norbait plazaz jabetuko ez balitz erabiltzeko baino ez, azken zerrenda horretan egoteagatik inolako eskubiderik edo itxaropenik sortzen ez dela kontuan hartuta.

12. artikulua. AGIRIEN AURKEZPENA

a) Agirien zerrenda. Gaindituen zerrenda argitaratzen denetik 20 eguneko epean, funtzionario izateko proposatutakoek Urduñako Udaleko Erregistroan aurkeztuko dituzte hautaketa-prozesuan parte hartzeko asmoz deialdiko oinarrietan eskatzen diren baldintzei buruzko egiaztagiria:

1. Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia, behar bezala erkatuta, edo kasuan kasuko Erregistro Zibilak egindako Jaiotza Ziurtagiria.
2. Kargu publikoak betetzeko ezgaituta ez daudela eta diziplinazko espedientearen bidez administrazio publikoko zerbitzutik bereizi ez dituztela azaltzen duen adierazpena.
3. Administrazio Publikoen Zerbitzura dauden Langileen Bateriaezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legean bateraezintasunerako aurreikusitako arrazoren baten eraginpean ez daudela azaltzen duen adierazpena.
4. Korporazioak izendatutako zerbitzu medikoek egindako ziurtagiri medikoa, oinarri hauen arabera kasuan kasuko eginkizunak behar bezala garatzea eragozten duen gaixotasunik edo akats fisikorik eta psikikorik ez dutela adierazteko. Desgaituak diren izangaiek organo eskudunaren ziurtagiri



ofiziala aurkeztu beharko dute, izaera hori dutela eta lanpostuko berezko eginkizunak garatzeko gaitasuna dutela egiaztatzeko.

5. Beharrezkoa izanez gero, eskatutako berariazko gainerako eskakizunei buruzko justifikazio dokumentala, erkatutako fotokopiaren bitartez.

b) Epea ez betetzea. Adierazitako epean, ezinbestean izan ezik, proposatutakoek deialdian parte hartzeko eskatutako eskakizunen eta baldintzen betearazpenari buruzko agiriak aurkezten ez badituzte edo, azterketa medikoaren ondorioz, baldintzaren bat ez dutela edo eskatutako eskakizunak betetzen ez dituztela ikusten bada, kanpoan geratuko dira zuzenean. Gainera, ezin izango dituzte izendatu, eta haien jarduketa guztiak ezeztatuko dira. Nolanahi ere, erantzukizuna ere eduki ahal izango dute, eskabidean bertan faltsukeriaz jokatu ahal izan dutelako hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskatzean. Halakoetan, korporazioko alkateburuak izendapen-proposamena egingo du hautaketa-prozesua gaindutakoan ezeztapen horren ondorioz deitutako plazen kopuruan lekua izango luketenen alde.

13. artikulua. IZENDAPENA

Aipatutako agiriak aurkezteko epea igarotakoan, proposatutakoak praktiketako funtzionario izendatuko dituzte izendapenean adierazten den egunetik praktikaldia gainditu ostean karrerako funtzionarioaren lanpostuaz jabetzapean jabetzen diren egunera arte dagoen epealdirako. Epealdi horren iraupena 2 hilekoa izango da.

Praktikaldia gainditutakoan, interesdunari jakinaraziko zaio karrerako funtzionario izendatu dutela behin betiko, eta «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» nahiz udalaren webgunean argitaratuko da.

14. artikulua. LANPOSTUAZ JABETZEA

Izendatutakoa hilabeteko epean jabetuko da lanpostuaz, karrerako funtzionario izateko izendapena «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» nahiz udalaren webgunean argitaratu osteko hurrengo egunetik hasita.

Justifikatutako arrazoirik gabe adierazitako epean lanpostuaz jabetzen ez direnak lanpostua utzitakoen artean geratuko dira, karguari uko egin diotela ulertuko da eta eskubide guztiak galduko dituzte. Halakoetan, korporazioko alkateburuak praktiketarako izendapen-proposamena egingo du hautaketa-prozesua gainditutakoan hautaketa-prozesu osoko puntuazioa batuta balorazio onena lortu dutenen alde, betiere, ezeztapen horren ondorioz deitutako plazen kopuruan lekurik balute.

Lanpostuaz jabetu ondoren urtebeteko epean eszedentziarako eskabidea egingo balitz, hutsik geratzen diren plazak esleituko dira. Horretarako, epaimahaiak hautaketa-prozesua gainditu dutenei buruz egin duen zerrenda erabiliko da, hautaketa-prozesua gainditu dutenen behin betiko zerrendako puntuazioaren hurrenkeraren arabera dagokion izangaiaren aldeko izendapen osagarriko proposamena egiteko asmoz.



15. artikulua. LAN-POLTSA EZ SORTZEA

Lehiaketa-prozeduraren bidez egonkortzeko ezohiko prozesu horiek ez dute lan-poltsarik sortuko.

16. artikulua. INPUGNAZIOAK

Interesdunek deialdia, bere oinarriak eta horren ondorioz nahiz epaimahaiaren jarduketan ondorioz sortzen diren egintza administratibo guztiak inpugnatu ahal izango dituzte, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean eta Administrazioarekiko Auzi Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46. artikuluan zehaztutako kasuetan eta moduan.



I. ERANSKINA / ANEXO I

ESKABIDEAK ESKATZEKO FORMULARIOA / FORMULARIO DE SOLICITUD DE INSTANCIAS

Garrantzitsua: Datuak jaso aurretik, kontsultatu jarraibide orokorrak.

Importante: Antes de consignar los datos consulte las instrucciones generales.

1 - Eskaeraren datuak / Datos de la solicitud

Interesdunaren datuak / Datos de la persona interesada

IFZ / NIF	Izen-deiturak edo sozietatearen izena / Nombre y apellidos o razón social
Jaioteguna / Fecha nacimiento	Sexua / Sexo
Herritartasun nagusia / Nacionalidad principal	Jaiotze-udalerria / Localidad de nacimiento

Harremanetarako datuak / Datos de contacto

Telefono mugikorra / Teléfono móvil	Posta elektronikoa / Correo electrónico
Telefono finkoa / Teléfono fijo	Lehentasunezko hizkuntza / Idioma preferente

2 - Jakinarazpenen bidea aukeratzea / Seleccionar medio de notificaciones

Aukera ezazu zein bilerako erabili behar den eskabide honetatik eratorzen diren jakinarazpenak helarazteko / Selecciona el medio para la práctica de las notificaciones derivadas de la presente solicitud.	☐ Paperean / En papel	☐ Baliabide Elektronikoak / Medios electrónicos
---	--	--

Paperean aukeratu gero, zehaztu jakinarazpenaren posta-helbidea / En caso de seleccionar "En papel" especifique la dirección postal de notificación.

Eskaera honen ondoriozko jakinarazpenak eta/edo komunikazioak honako posta-helbide honetan egingo dira, baldin eta ematen den unean ez badago indarrean erakundearen Ahalordetzeen Erregistro Elektronikoan inskribatutako ahalorde-ematerik, edota jakinarazpen elektronikorako harpidetza bat, udal-egotza elektronikoaen «Nire harpidetzak» atalean jasoko dena.

Las notificaciones y/o comunicaciones derivadas de la presente solicitud se practicarán en la siguiente dirección postal siempre y cuando no exista en el momento de su emisión, vigente un otorgamiento de poder inscrito en el Registro Electrónico de Apoderamientos de la entidad y/o una suscripción a la notificación electrónica que constará en el apartado «Mis suscripciones» de la sede electrónica municipal.

Probintzia edo l. historikoa / Provincia o T. histórico	Udalerria / Municipio			
Kalea / Calle	Posta kodea / Código postal	Bllokea / Bloque		
Atari zk. / Nº portal	Eskailera / Escalera	Solairua / Piso	Aldea / Mano	Altea / Puerta



3 - Deialdiaren datuak / Datos de la convocatoria

Txanda / Turno

☐ Askea / Libre	Deialdiaren izena / Nombre de convocatoria:
--	---

4 - Hizkuntz eskakizun / Perfil lingüístico

Aderazi jarraian egiaztatutako hizkuntza-eskakizuna / Indique a continuación el perfil lingüístico acreditado

☐ 1. HE / PL1	☐ 2. HE / PL2	☐ 3. HE / PL3	☐ 4. HE / PL4
--------------------------------------	--------------------------------------	--------------------------------------	--------------------------------------

5 - Tasak ordaintzea / Pago de tasas

Inskripzio-eskaera ez da izapidetuko tasaren La solicitud de inscripción no se tramitará mientras no se haya
zenbatekoa ordaindu arte. hecho efectivo el importe de la tasa.

6 - Aurkeztu dudan dokumentazioa / Documentación que presento

Eskatutako datuak eta dokumentuak / Datos y Documentos exigidos		
BALDINTZAK / REQUISITOS		
☐ NAN	DNI	Eskabidearekin batera dokumentua aurkeztu du / Aporto el documento junto con la solicitud.
☐ Oinarri berezietan eskatzen den titulazioa / Titulación requerida	Zehaztu titulazioa / Especificar Titulación: _____ _____ _____	Eskabidearekin batera dokumentua aurkeztu du / Aporto el documento junto con la solicitud.
☐ Hizkuntza-eskakizuna egiaztapena	Acreditación del perfil lingüístico	Eskabidearekin batera dokumentua aurkeztu du / Aporto el documento junto con la solicitud.
☐ Aterketa-eskubideengatik tasa ordaindu izanaren egiaztapena	Justificante de pago de tasa por derechos de examen	Eskabidearekin batera dokumentua aurkeztu du / Aporto el documento junto con la solicitud.
MEREZIMENDUAK / MERITOS		
☐ Erakunde honetan emandako zerbitzuen datuen ziurtagiria.	Certificado de datos de servicios prestados en la entidad	Eskabidearekin batera dokumentua aurkeztu du / Aporto el documento junto con la solicitud.
☐ Beste administrazio publiko batzuetan egindako zerbitzuen ziurtagiria	Certificado de servicios prestados en otras administraciones públicas	Eskabidearekin batera dokumentua aurkeztu du / Aporto el documento junto con la solicitud.
☐ Eskatzen dena baino goi-mailako titulazio akademikoa edo ikasketak-eremuko titulazio espezifikoak	Titulación académica superior a la exigida para el acceso y/o Titulación específica del campo de estudio	Eskabidearekin batera dokumentua aurkeztu du / Aporto el documento junto con la solicitud.
☐ Oinarrietan aitortutako erakunde ofizialek jasotako prestakuntza egiaztatzen duen ziurtagiria	Certificado acreditativo de formación recibida por Entidades Oficiales reconocidas en las bases	Eskabidearekin batera dokumentua aurkeztu du / Aporto el documento junto con la solicitud.
☐ Karrerako funtzionario izateko prozedurak oinarri arautzaileen arabera gainditu izanaren egiaztapena	Documento acreditativo de haber superado procedimientos de acceso a la condición de funcionario/a de carrera según bases reguladoras	Eskabidearekin batera dokumentua aurkeztu du / Aporto el documento junto con la solicitud.
☐ Informatika-eragutzak egiaztatzen dituen ziurtagiria (IT TXARTELA)	Certificado acreditativo de conocimientos de informática (IT TXARTELA)	Eskabidearekin batera dokumentua aurkeztu du / Aporto el documento junto con la solicitud.



☐	Euskararen ezagutza	Conocimientos de euskera	Eskabidearekin batera dokumentua aurkezteko dut / Aporto el documento junto con la solicitud.
